

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 30. Igandea

2009 Urriak 25 (B urtea)

Patxi Otamendi

Jeremias 31, 7-9

Hebertarrei 5, 1-6

Markos 10, 46-52

- Jesus Jeriko-tik irten eta bidea hartzera doa. Handik aurrera Jerusalemeko bideak gorantz egiten du; bide aldapatsua. Lehentxeago ebanjelioak, Jesusen esaldien bitartez, hiru bider iragarri digu Gizonaren Semea jazarria izango dela (8:31; 9:31; 10:33). Lehen iragarpena eta hirugarrena arteko hasiera-bukaera pasarteetan itsu bana sendatzen dira (8:22-26 eta 10:46-52). Tarte horretan, hiru bider, Ikasleak ulertu barik geratu dira. Hiru bider itsu, iragarpenak zioena antzeman gabe. Hauek itsutasun espiritualak.
- Itsutasun fisikoak tamaina handiko ezintasunean uzten zuen, gizarte harremanetatik zuzenki baztertuta eta alboratuta. Itxura hori du Bartimeok: Jeriko hiriko irteera atari inguruan zegoen, bide ondoko beste aldean eserita. Eskaleei utzitako esparru hura estrategikoa zen, handik pasatzen baitziren kanpora zihoazenak. Han zegoen, ezer ez zirenen lekuan, zer egiteko askorik ez zuela. Orduak eta bidaiariak igaro bai, baina berak behar zuen ikusmena betikoan jarraitzen zuen. Nahiz eta ez ikusi, berehala ohartzen da nor ari den aurretik pasatzen. Greziar literatura klasikoan beste itsu bat, Tiresias, bere ikusmen-ezean egia nabarmentzeko gai izango da. Bartimeok itsutasun fisikoa du, ez ordea espiritualak. Besteentzat ez-gai hartua zena, Jesusek fedea goraiatzen dio. Jendeak baino sakonagora doa Jesusen begirada; gizakien baitan dauden aberastasun eta balioak antzematen dituelako.
- Bartimeok Jesusi “*Daviden Seme*” oihukatzen dionean, jende taldeak isilarazi nahi du. Ezer diren artekoa izanik ez du hitz publikokorako eskubiderik. Eskaria egiteari tinko heltzen dio; agertu duen kuraia Jesusek ongi deritza eta goretsi egiten du. “Duzun fede horrek salbatu zaitu”. Beste pasarte batean (5:21-43) odol-jarioa zuen emakumeari ere ez zioten Jesusengana hurbiltzen utzi nahi. Bi pertsona horiek -erabateko etsituak bezala- ez dute amore ematen eta ez dira geldirik geratzen. Gainera, sendatuak izan ostean gizartean txertatzen dira. Itsuak Jesusen atzetik jarraitzen dio, gero gizon honetaz ezer gehiagorik jakingo ez badugu ere.
- Bibliako tradizioan Salomon zen Daviden semea. Jesusen garaiko judutarrek Salomoni onarpen oso ona gordetzen zioten, sendatzeko ahalmena aitortuz. *Salomonen Testamentuan* zera aipatzen da: “Errege Salomon, Daviden Seme, erruki nitaz”. Bartimeo Jesusengana esaldi berdintsuz zuzentzen da. Pasarte honen ondoren Jesus Jerusalem sartzeko da, eta han Daviden leinuko erregetzat aurkeztuko dute. Handik gutxira, “*Judutarren errege*” deituraz gurutzatua izango da.
- Itsu sendatua izateak eduki sinbolikoa du. Bi itsu sendatuak izatearen bitartez legean bi lekuko testigantzak duen baliotasuna iradokitzen da. Mateo ebanjelariak, bere aldetik, deabruak hartutako bi pertsonen sendaketa kontatzen du. Joanek sarritan erabiltzen du ilunpea eta argiaren kontrastea (9. kapitulua).

Bi pertsona izan dira argituak. Ikasleak, hain zuzen, argiaren beharrean jarraitzen dute. Agian Markosek bere ebanjelioko irakurleei erronka zorrotza uzten die: Jesus nor den argitze-bidea egin dezatela, ez dezatela itsu izaten jarraitu. Testu bezala, ebanjelioak honaino egindako ibilbidean bada garaia irakurleak hausnar dezan nor den liburu honetan iragartzen dena.

- Itsuak balioak bazituen, ez al ditugu guk gureak ere? Ikasleak federako hainbat urrats eman beharrean baziren, zertan geratzen zaigu guri egitea? Agian entzutea, Bartimeok Jesusen pasaeran egin bezala?